

AKORDIO JAKINARAZPENA

Udal Osoko Bilkurak 2025eko uztailaren 24an egindako bileran, besteak beste, ondorengo erabakia hartu zuen:

"9.- 2025eko Herri Eguna: nekazal erakusketak diruz laguntzeko eskaera (2025ZDIZ0033)"

Idazkariak Alkatetzaren proposamen hau irakurri du dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

" Aitor Gerenabarrena jaunak (Auzoak eta Landa Garapena Teknikariak eta batzordeko idazkariak) uztailaren 15ean egindako bileran (CSV zkia: ESKU404971b1-e71c-46a9-a283-d9557bd94d3a) batzordeak honako DIKTAMENA egin du:

2025eko ekainaren 16ko sarrera-data duen idatziaren bitartez, Aitor Lizarralde Aiastui jaunak Nekazarien elkartearen izenean, urtero lez, Herri Egunerako laguntza eskaera egin du, hain zuzen, nekazal erakusketak antolatzekeo gastuei lotutako 24.200 €-koa.

Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak eta berau garatzeko 887/2006 Errege Dekretuak xedatutakoari jarraituz dirulaguntzak emateko ohiko prozedura norgehiagoka izango da, dagokion konkurrentzia eta publizitatea bermatuta. Salbuespen gisa, ezohiko izaeragatik zuzenean eman ahal dira dirulaguntzak, beti ere, interes publikoa edo soziala egiaztatzen bada (22.2.c art.).

Herri Egunaren baitan antolatzen diren ekitaldiak izaera historikoa dute. Lehen sektorearekin lotura zuzena izanik, betidanik nekazarien elkartearen laguntzarekin eta elkarlanean antolatu direnak. Hortaz, egitasmoak duen interes publikoa eta soziala nabaria da.

Oñatiko Udalak emandako diru-laguntzak kudeatzeko ordenantza orokorraren 3. atalak, zuzeneko diru-laguntzak edo izenik gabeak, aurreko deialdirik behar ez dutenak arautzen ditu. Horren arabera, aurreko deialdirik behar ez duten izenik gabeko dirulaguntzak emateko prozedura hasiko da interesdunak hala eskatuta.

Gaia aztertu ondoren, Landa Garapen Batzordeak aho batez honako erabakia onar dezala eskatu dio Udal Osoko Bilkurari:

ESKU001878f-dd37-4ff1-84a3-f7d9ab34biae

Lehenengoa: Herri Egunaren baitan antolatzen diren ekitaldiek duten izaera historikoa eta betidanik nekazarien elkartearen laguntzarekin eta elkarlanean antolatu direla kontuan izanda, egitasmoa onura publikotzat izendatzea.

Bigarrena: 2025eko Udal aurrekontuetako 1 1104.481.414.00.02 2025 (138) diru-atalaren kontra, 24.200 €-ko dirulaguntza ematea.

Hirugarrena: dirulaguntza eman ahal izateko, diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak eta berau garatzeko 887/2006 Errege Dekretuak xedatutakoari jarraituz, lanak gauzatu aurretik, hitzarmen baten jaso beharko dira laguntza gauzatzeko baldintzak (22.2 a) artikulua).

Gaia aztertuta, eta Landa Garapen batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamahiru bertaratuta, alkateordeak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.”

Jakin dezazun eta behar diren ondorioetarako adierazten dizut hori, Oñatin, sinadura digitalean ageri den datan.

ESKU0d01878f-dd37-4ff1-84a3-f7d9ab34biae